



**FRANKEO
ORDAINDUA**
**FRANQUEO
PAGADO**
POSTAK - CARTAS



zaraobe
institutua

65 URTE ESKUALDEAN
48 zenbakia 2018ko urtarrila



bizi

ZARA OBE ETA AIARALDEA AHOBIZI



AURKIBIDEA

Zaraobe eta Aiaraldea ahobizi	2
Zaraobetarrak.....	3
Salerno Amurrio Ikasleen elkar-trukea	6
Errekonozimenduak LHn	8
Duala	9
Santomasak 2017	10
Nazioarteko harremanak	12
Iruña Veleia	13
Agenda 21	14
Janari bilketa	15
La energia a debate.....	16
Guraso elkarte.....	17
Puntu morea.....	18
Erretiroa	20

Euskararen Eguna egutegian finko markatuta dugu gure ikastetxean. Badira hamarkadak diasporako euskaldunek ospatzeari ekin ziotela, eta harrezkero Euskal Herri eta munduko euskaldun guztiok bat egiten dugu abenduaren 3an.

Ikastetxe eta herri bakoitzean bezala, Zaraoben urteetan antolatu izan da ekimenik, oporraldiaren aurretik burutzen den San Tomas jaiarekin abendu ziklo polita osatuz. Iaz Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak igorrita tamainako aldaketa eman zitzaion: eskualde osoan batera ospatu genuen estreinakoz, ideia eta euskarri batzuen inguruan; euritakoak, haizerrotak, koreografia...Asteetan zehar lan egin eta gero Euskararen Eguna bera denok batera ospatu genuen Amurrian.

Aurten aurrerapauso are handiagoa eman dugu eskualdeko euskalgintzako talde guztiok: euskaldun garenok AHOBIZI bihurtu eta euskaraz ulertzeko modua dutenak BELARRIPREST, txapa paparrean generamala. Askotan euskaraz egiteko falta zaigun ohitura bazterrean uzteko "armairutik ateratzeko" gonbita egin ziguten. Gure ikastetxean izen ematea bultzatu genuen hiru estamentuen artean eta ekarpen garrantzitsua egin diegu ekimenari guri dagozkigun herrietako (Amurrio, Urduña, Artziniega, Aiara-Herri, Okondo) parte hartzea suspertuz, ekimen honen garrantzia ikastetxeetako mugez gaindi doalako. Eta aurten abenduaren 3a denok batera Urduñan ospatu genuen.

Erronka edo euskaraz egitearen "aitzakia-epea" astebetekoa zenez batzuei eskas geratu zaie, baina izena eman genuenetakoen artean bada ohiturak familian, lagunartean, lanean, parkean, erosketak egiten...aldatu dituenik, eta euskaraz, gaur egun, espazio handiagoa hartzen du euren bizitzetan. Denak animatu nahi zaituztegu aste honetan saiatu zinetena urte osoan zehar gordetzen, zuen aho bizitiek euskara ateratzen segitzeko edo zuen belarri prestak ondoan duzun euskaldunari euskaraz egin dezala errazteko.

Eta datorren urtean? Proposamen are potoloago baten berri izaten hasiak gara. Aiaraldean, noski, jarraituko dugu denak batera baina Euskal Herri osoan bultzatuko den EUSKARALDIA izeneko ekimena aterako dugu aurrera elkarrekin. Astindu zeure euskara milaka eta milaka ahobizirekin bat!!



ZARAOBETARRAK



JABI ISASI

Zein da Zaraoberekin duzun lotura?

Lotura handia eta denboran luzea! Hona heldu nintzen Etxaurren Ikastolatik 12 urteak beteta ez nituela! Bertan egin nuen DBH eta Batxillergoa. Urte batzuk beranduago, bertsolaritzako saioetako irakasle bueltatu nintzen. Hezkuntza Formalarekiko nuen lehenengo hurbilketa erdi luzea izan zen. Nahiko frustantea zenbait gelatan portzierto. La Puri! Zelako elementoak! Hortxe ikusi nuen, ikasi nahi ez duenari, kostata irakatsiko diozula zeozer! Sr.Miyagi ez bazara, behintzat. Baina tira hementxe gabiz halere, izan ere, momentu honetan DBHn dezibelio hormonatuen pasillo terrorifikoa bueltaka nabil plastika klaseak ematen.

Zer dakarkizu gogora zure ibilbideak Zaraoben?

Ikasitakoa baino gehiago jendearekin izandako bizipenak eta zenbait aldrebeskeria etortzen zaizkit burura. Primo eta Isma askatu kanpaina, irakasle gela hartu genueneko, Donibane Lohizune inguruko Carrefurrera egindako txango desastroso mitikoa (La Arboledakoaren kaltetan), ze politto jartzen ziren ikasle eredugarrienak ikasbidaian, gelako lagunak, maitasun kontuak, pistako tropa, aztarna utzitako irakasle batzuen spitx edo diskurtsoak, AJA ko bilera zeharo aspergarriak nere 15 urteentzat.... Lehenengo egunean kaleratu ninduen ordezkia (Mania seguro!).... 6 urte denetarako ematen dute. Eta orain akordatzen

Ikastetxeko aldizkarian atal finko honi hasiera eman genionetik, hainbat urte eta ikasle ohi ekarri ditugu bertara, poztasun handiz ekarri ere. Oraingo honetan ditugun hirurak, ikastetxeko ikuspegi desberdinaren gainean gogoeta egiteko aukera izan dute. Gogoan dut ikasle ziren garaia. Gaur egun, berriz, irakasle ditugu, eta beste aldetik aztertuko dute ikaskuntza-irakaskuntzaren egoera.

Irakasle bihurtu zaizkigun ikasleak hauexek dira: Javi Isasi, marrazketa irakaslea, Pablo Mas gorputz heziketa irakaslea, eta Amaia Altube, euskara irakaslea. Gure lanak balio duela sentiarazten diguzue.

Ongi etorriak!

Ikasleak hauexek dira:

Jabi, Pablo eta Amaia

ez banaiz ere, seguro ikasgaietako zeozer gogoan dudala oroimenaren ez dakit zein karpetan...

Zein da zure zeregina gaur egun?

Nire eginkizun nagusiak, arnasa hartu, elikatu, atsedena hartu eta harreman sozioafektiboak izatea dira. Bizitzea eta persona izatera heltzen saiatzea. Inguruan dudak jendearekin batera, hitzaren zentzu zabalenean, haztea. Horretaz aparte, hona nator hizkuntza plastikoaren gainean dakidana konpartitzera, edo zaldi eroari jarraituz plastilina klaseak ematera! Karkarkar!

Zer uste duzu dagoela faltan edo soberan hezkuntza sisteman edota Zaraoben bertan?

Hezkuntza Sistema leku arraro batean ikusten dut, eskizofrenia kutsuekin. Garaian garaiko gizartearen isla den neurrian, gehienok kontrako oinaz harrapatu gaituen egoera teknologiko, sozial..., berri honetara lotzeko bere buruaren bila. Baina zaila bada norbere burua aurkitzea, horrenbeste buru duen pizti edota konpainia animal honen kasuan... atera kontuak. Aldaketa garaian gaudela esango nuke, edo behintzat norabide aldaketa baten beharraren aurrean, baina mastodontearen inertzia ez da bromatarako gauza! Eskizofrenia kutsuak nonahi ikusi ahal dira: elkarlana eta horrelako baloreen gainean lan egiten dugunean, gizarteak eta lan munduak bestea zapaltzearen gorazarrea egiten duen bitartean. Ikasleak tituloak pilatzen jartzen ditugunean edozein

lan kutre egiteko, kutremende ordainduta. Teoriak ikasleen interesetan fokoa jartzea esaten duenean eta aldi berean Curriculum sarriegitan martziano bat bete behar izaten denean. Eskolako urteak hazteko baino ahazteko azterketak prestatzeko erabili behar direnean (selektibitatea, revalida famauak...). Paperak eta paperak bete behar izatea, baliagarri ikusi ala ez, burokraziaren jaiak. Ikasketa pertsonalizatuaz hitz egitea 25 ikasletako ratioekin. Informazio tonak memoriaz ikasten jarraitzea googleren garaian. Zertarako? Pentsatu edota ulertu gabe....

Aspertu arte jarraitzea dago... Gauza hauetaz aparte ikasle, irakasle, guraso, tutore... eta bestelako gizarte taldeen arteko enpatia eza, besteen azalean jartzeko ezintasuna. Askotan arerio bezala ikusten dugu elkar, triste xamarra dena. Egia esateko, batzutan zaila da enpatizatzea, unibertso paralelotan bizi garela dirudi askotan, gizartearen atomizazioaren isla izango da, agian. Youtube generazioak dituen erreferente batzuk ere ez dute laguntzen enpatia hori lortzen.

PABLO MAS

Zein da Zaraoberekin duzun lotura?

Amurriokoa naiz, eta nire ikasketa guztiak sare publikoan egin izan ditut, beraz Matias de Landaburu lehen hezkuntzako ikastetxetik atera ostean, DBHko eta Batxillerreko ikasketak Zaraoben bete nituen.

Zer dakarkizu gogora zure ibilbideak Zaraoben?

Poztasuna; lagunak, kideak, momentu oso onak, nerabezaroa, etab.. Nire lagun guztiek hemen bertan ikasi zuten; beraz, nire koadrila guztia hemen zegoen. Gainera, esan beharra dago gaur egungo irakasle asko nire garaian nire irakasleak izan zirela, eta oso giro eta erlazio ona zegoen. Laburtuta, oso garai polita izan zen.

Zein da zure zeregina gaur egun?

Hau da nire 4. urtea Gorputz Heziketako irakasle naizela, eta nire lehenengoa Zaraoben. Aurretik kiroldegi zuzendari ibilia izan naiz. Era berean, beti kirol errendimenduan egon naiz murgilduta, atletismoan eta azkenengo bolada honetan txirrindularitzan, prestatzaile fisiko moduan.

Zer uste duzu dagoela faltan edo soberan hezkuntza sisteman edota Zaraoben bertan?

Faltan botatzen dudana, Euskararen erabilera eskolatik kanpo da, eta ez dut faltan botatzen Zaraoben soilik, baizik eta Amurrio osoan. Bai nire gaur egungo lanagatik, bai txirrindularitzagatik, Euskal Herriko herri pilo bat ezagutzen ditut, eta herri hauek guztiz euskaldunak dira, eta horrek asko laguntzen du euskara mailan, euskara mantentzean eta nola ez, hezkuntza kalitatean oro har.

Kínder malo, "La que se avecina" eta horrelako jendilaje nazkagarriak eta ikusentzunezko zaborrak bidaltzen dituen mezuekin gizarteratzen badira... Malo! Elkarbizitza sano baten kontrako atentatuak direlako! Gusto eskasekoak izateaz aparte! Eta bukatzeko... erabakiguneak erabaki horiek praktikara eramane behar diren lekuetatik argi urteetara egoteak eskizofrenia hori areagotzen dute. Hezkuntzan eta bizitzako arlo guztietan! Eta zeozer positiborekin amaitzeko, funtzesko aspektuetan irakaslegoa prest ikusten dut norabide aldaketa horretarako, baina bide luzea dugu aurretik! Ea kapazak garen nahi dugun hezkuntza hori aurrera eramaten!

Bukatzeko:

Ikasi hazteko! Klasean eta klasetik kanpo! Lagunekin, naturan, harremanetan, familiarekin (odolezkoa edota odolezkoa ez dena), liburuetan, zineman... Bizitzeko! Bizitzen ikasteko! Eta egokitu zaigun denbora honi ahal diogun guztia ateratzeko! Iepale!

Bukatzeko:

Zaraobe institutuak ematen didan aukera hau erabili nahi dut animoak emateko ikasle guztiei beraien ikasketetan, urte hauek aprobetxatzeko, eta beraien gustuko arloak etorkizunean jorratzeko.



Zein da Zaraoberekin duzun lotura?

Nik Zaraoben egin nituen unibertsitate aurretiko ikasketak. Une honetan Zaraoberekin dudana lotura profesionala da, bertako irakasle bainaiz. Gaur egun institutuari gure garaiko ikastetxetik aldaketa fisikoa baino ez diot antzematen. Gure belaunaldia trantsiziozkoa izan zen: 1. eta 2. BBB egin genituen, baina baita Batxilergoa ere. Beraz, DBHn ibili ez zen azken belaunaldia izan ginen. Honetaz gain, ez Hezkuntza sisteman ezta Zaraoben ere, ez dut uste aldaketa sakonik eman denik.

Zer dakarkizu gogora zure ibilbideak Zaraoben?

Oroitzapen onak eta txarrak ditut institutuan egon nintzen garaiaz. Lau urte gora-beheratsu eman nituen bertan. Nerabetasunaren eta mundu berri eta ezezagun baten erdi-erdian sentitzen nintzen ikasle nintzen garai hartan. Zaraoben eman nituen urteek ere lagundu zidaten, institutuko ondorengo ikasketetan nondik jo nahi nuen erabakitzen.

Hizkuntzak eta literatura, hori zen gustatzen zitzaidana eta, gaur egun, ere gustatzen zaidana.

Zein da zure zeregina gaur egun?

Gaur egun nire zereginik garrantzitsuenak amarena da, bi ume txiki baititut eta horrek hartzen baitit nire jardunaren zatirik handiena. Aurtengo ikasturtean Zaraobeko euskara irakaslea naiz eta nire egoera pertsonalak uzten didan heinean, behintzat, ilusio handiz hartu dut aurtengo lana.

Zer uste duzu dagoela faltan edo soberan hezkuntza sisteman edota Zaraoben bertan?

Faltan, hezkuntza sistema berri bat. Nire ustez, gaur egungo hezkuntza sistema ez da bat ere egokia. Boletinetan nota zoragarriak lortzen dituzten ikasle askok bizitzari aurrera egiteko, ikasketen bitartez behintzat, ez dute inolako tresnarik eskuratuko.

Ikaslearen ahulgune eta indarguneetan oinarrituz sortutako hezkuntza sistema berri bat behar da, umearen benetako beharretan oinarrituko dena. Badira hezkuntzari dagozkion metodo pedagogiko alternatibo desberdinak, Waldorf, Montessori, Kumon, Doman eta abar.

Waldorf pedagogiak esaterako, munduan zehar, Haur Hezkuntzan 1600 eskola baino gehiago, Lehen Hezkuntzako 870 eta hezkuntza maila guztietan dauzkatenak 400 eskolatik gora daude. Euskal Herrian ere, Aramaion 2005etik pedagogia honetan oinarrituz martxan dagoen eskola dugu.

“Umezaroan izaten den berezko curiositatea eta harritzeko gaitasunari hazten uzten bazaio, interes eta gogo bizian bihurtzen da bizitza guztirako. Honexek egiten du bizitza bera interesgarri, asperdura eta

frustrazioei indarra kenduz”. Zita hauxe, Waldorf pedagogiaren oinarrietako bat da eta arlo teorikoan, behintzat, erabat ados nago.

Ez dakit Waldorf, Montessori, Kumon, Doman edo Heziberri 2020 planetik, guztietatik zeozer hartuta, hezkuntza sistema hankaz gora jarri eta metodologia eta plan egokiago bat egiteko aukera noizbait ere izango den. Hau da, hori guztia egiteko, baliabiderik noizbait izango ote dugun, baina argi daukat aldaketa behar dela. Pertsonaren garapena kontuan hartuz, bizitzaren erronkei erantzuteko kapaz izango diren pertsona helduak osatzeko tresnak eskainiko dituen sistema berria. Nondik gatozen eta nora goazen ahaztu gabe.

Irakasleekin ere ikasleekin erabiltzen den antzeko oinarriak ezarriko nituzke. Alde batetik, gutako bakoitzak ditugun indarguneei ahalik eta etekin handiena atera, eta, beste aldetik, ahulguneak indartu.

Orain arte lanean aritu naizen ikastetxe guztietan eta baita Zaraoben ere soberan, irakasleekin bide beretik aritu beharrean kontrara aritzen diren gurasoak.

Bukatzeko:

Niri Zaraobek ikasle nintzenean asko eman eta kendu zidan eta gaur egun ere sentazio bera dut, asko eman eta kentzen didanekoa!



SALERNO AMURRIO

BATXILERGOKO IKASLEEN ELKAR-TRUKEA



Urriaren erdialdera bisitari batzuk izan genituen: Salernoko Regina Margherita Liceokoen bi irakasle eta 24 ikasle etorri zitzaizkigun eta, astebete zehar, gure ikasleen etxeetan bizi izan ziren. Amurrio eta inguruak Alessia, Francesca edo Lorenzo izeneko jende gazteaz bete ziren. Gure alkatea ezagutu zuten, frontoian egon ziren eskupilota praktikatzen, Errioxa, Bilbao edo eta Gaztelugatxe bisitatu zuten, eta gure gazteriaren alaitasun paregabeaz gozatu ziren. Azken eguneko negar-malkoak ikusita, egonaldia motz egin zitzaielako susmoa dugu. Hau, ordea, trukaketaren lehenengo etapa besterik ez da; bigarrena udaberria aldera burutuko baita, gure ikasleak Italiako Salernora bisitan doazenean.



Xabi eta Sandra

Nortzuk izan dira zure gonbidatuak eta nolakoak dira?

Sandra: Francesca pixka bat lotsatia da eta ez oso berritsua. Gustu desberdinak ditugu. Hala ere, oso ondo moldatu gara.

Xabi: Noemi ni bezain berritsua da, maitagarria, aktiboa, gauza berrietarako beti prest. Primeran moldatu gara eta komunikazio estua mantentzen ari gara.

Gure ohituren artean zer izan da haiei deigarrien iruditu zaiena?

S. Amurrioko lokal eta lonjen giroa deigarri egin zaie, eurek ez dutelako halakorik. Hemengo lasaitasuna kaletik gauez ibiltzeko ere azpimarratu dute.

X. Bai, gu berriz harritu gaitu oso harreman estua zutela euren gurasoekin, komunikazio etengabea zuten eta.

Zein izan zen aste horretako momentu dibertigarriena?

X., S.: Larunbat gauean egin genuen festa oso ondo atera zen, Amurrioko taberna batean egin genuen eta benetan ondo pasa genuen.

Egon al zen gaizki-ulerturen bat edo txarto sentiarazi zintuen momenturik?

X., S.: Alderantziz, momentu onak izan dira guztiak, zortea izan dugu gure gonbidatuekin.

Aste horretan zehar zuek klaseko erritmo normala jarraitu behar zenuten. Zelan moldatzen zineten?

S. Klase ordu batzuk galdu genituen, baina gero errekupearatu nuen gelakideei apunteak eskatuta. Ez da arazorik izan.

X. Nik onartu behar dut Noemik denbora asko kendu didala, berarekin nengoelako arratsaldean zehar. Horregatik, oso berandu jartzen nintzen etxerako lanak egiten. Hala ere, merezi izan du.

Gure bi ikasleri
galdetu diegu
aste horretako
esperimentiaz,
Xabi Egiari eta Sandra
Castañori, hain
zuzen ere.



Udaberrian zuen gonbidatuen etxeetara bidaiatuko duzue. Zer esperientzia mota espero duzue han?

S. Gogo handia dut hara joateko. Gainera abantaila da Francesca ezagutzen dudala hara joan aurretik. Familia ere skype bidez ezagutu dut eta oso jatorra dirudi. Salernotik urrun bizi dira, baina espero dut hori oztoporik ez izatea besteekin elkartzeko!

X. Ni ere irrikitan nago. Noemi Cetaran bizi da, Costa Amalfitanako herrixka da, pelikulazkoa dirudiena, benetan. Familia atsegina da, eta bere nebak autoa duenez, eramango gaitu turismoa egitera.

EL INTERCAMBIO ESCOLAR, ALGO MÁS QUE UN VIAJE DE ESTUDIOS

En una sociedad cada vez más globalizada, la movilidad de los estudiantes es un valor muy apreciado. En Zaraobe ya hace muchos años que funciona con mucho éxito el programa Erasmus para estudiantes de formación profesional. En esa dinámica se encuadra también el proyecto de intercambio que iniciamos en Zaraobe hace un par de años y al que queremos dar continuidad. Se trata de una estancia corta pero enriquecedora, porque permite al alumnado, además de hacer turismo, conocer el día a día de una familia en un país y cultura diferentes, y, en definitiva, les permite abrirse a un mundo del que sin duda llegarán a ser actores protagonistas.



FORMACION EN CENTROS DE TRABAJO

RECONOCIMIENTO A INSTRUCTORES,
EMPRESAS Y ALUMNOS/AS



Yeray eta Txaber



El pasado 30 de noviembre de 2017, CONFEBASK organizó la cita anual de reconocimiento de empresas e instructores en formación dual y formación en centros de trabajo. En esta cita también se efectúa la entrega de diplomas al alumnado que realizó las mismas (dual o FCT) con éxito el curso pasado.

Este año el Instituto ha acudido a esta cita con un doble interés: Por un lado, el de acompañar a dos de sus alumnos que recibieron el citado diploma: Yeray Lopez de Abetxuko y Txaber San Roman.

El curso pasado finalizaron con éxito el ciclo de Mantenimiento Electromecánico de grado medio y en el momento actual realizan el ciclo de grado superior de Mecatrónica Industrial.

Por otro lado el instituto propuso a CONFEBASK un doble reconocimiento: uno a la empresa INAUXA, que históricamente ha colaborado de manera ejemplar con el centro en diferentes iniciativas y programas educativos; otro al instructor de Tubacex Taylor, por su implicación en el ámbito de FCT y la formación dual. Ambos fueron reconocidos y esto nos ha llenado de satisfacción.

Felicidades a todos/as y esperamos seguir colaborando!

Aurreko 2017ko azaroaren 30ean, CONFEBASKEk urteroko errekonozimenduak egiteko ekitaldia antolatu zuen, formakuntza dualeko lantegi, lanpostuko prestakuntza eta irakasleei esker ona adierazteko. Ekitaldian bertan, aurreko ikasturtean dualen zein Lanpostuko Prestakuntzan emaitza ona lortu zuten ikasleei diplomak banatu zizkieten.

LANBIDE HEZIKETA: HEMEN DAGO DUALA

La Formación Profesional DUAL en régimen de alternancia ha venido para quedarse. Alumnado de los ciclos formativos, desarrolla ciertas competencias y trabaja ciertos contenidos en el ámbito de la propia empresa.

Los datos generales de inserción laboral para el alumnado que participa de la formación dual son de casi el 80%, unos datos que animan a continuar en esta dirección.

Pero para participar en el programa no basta con querer; al alumnado se le exige un nivel de responsabilidad alto y una gran capacidad de trabajo: con la ley del mínimo esfuerzo no podemos entrar en la dual.

Hemos entrevistado a **Joseba Ugalde y Ander Urruela**, alumnos del instituto que participan en el programa dual.



Joseba eta Ander

JOSEBA UGALDE

Zein enpresatan zabilta?

Envases Metalurgicos de Alavan.

Zer moduzko esperientzia izaten ari da? Positiboa?

Oso positiboa, lan giroa eta baita klaseko giroa ere oso ona da eta oso pozik nago.

Lana handia egin behar da?

Bai, lana eta ikasketak batera egin behar direlako, baina esperientzia positiboa da.

Hobeto prestatzen zaituela esango zenuke?

Bai, zalantzarik gabe, alde praktikoa ikusten dut eta.

Zein da gauzarik onena?

Soldata eta nire lehen lan esperientzia.

Eta txarrena?

Denbora falta, ikasketak ere aurrera eramane behar dituzulako, eta ez daukat denbora askorik niretzat.

Gomendatuko zenuke?

Bai, baina sartu aurretik ikasleei argi azalduko nieke zertan datzan eta bertan dauden zailtasunak.

ANDER URRUELA

Zein enpresatan zabilta?

Mubea Inauxa SAN.

Zer moduzko esperientzia izaten ari da? Positiboa?

Esperientzia oso ona izaten ari da. Lantegian asko ikasten ari naiz.

Lana handia egin behar da?

Lantegian beste langile bat zara, eta, gainera, zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta esperientzia handiagoa hartzen da.

Hobeto prestatzen zaituela esango zenuke?

Bai, esperientzia handia hartzen da.

Zein da gauzarik onena?

Etorkizunerako prestatuago zaudela.

Eta txarrena?

Askok ahalegindu behar zarela. Ni, adibidez, klaserik ez galtzeko beranduago noa lantegira eta oso gogorra egiten da.

Gomendatuko zenuke?

Bai, esperientzia ona dela uste dut.

SANTO MASAK

- 2017 -



Jolasak

Bertsotan



Dantzari



NAZIOARTEKO HARREMANAK

18 URTEKO IBILBIDEA EUROPAN
ETA MUNDUAN ZE HAR



Danimarkako ikasleek esperientzia ona izan zute gure artean, pasa den udazken honetan.

Badira urte batzuk, 18 hain zuzen ere, Europar proiektuak garatzen hasi ginela gure ikastetxean. Urte hauetan guztietan, ibilbide luzea eta oparoa bete dugu, ez da erraza izan, baina atzera begira esperientzia eta emaitzak oso positiboak izan dira. Ikastetxe txikia izan arren, gure Europa mailako erlazioak, erraldoiak dira.

Ez da erraza esatea zenbat izan diren, atzerrian bizipen honetaz goatzeko aukera izan duten ikasleak, 150 eta 200 bitartean, agian...

Baina adibide bat emateko, azken 5 urte hauetan, eta gure proiektu propioak garatu ditugunetik, Erasmus+ programaren barruan, Zaraobeko 65 ikasle eta 15 irakasle bidaiatu dira atzerrira, praktikak enpresa edo ikastetxeetan garatzera.

Horretaz aparte, 35 ikasle eta 14 irakasle jaso ditugu gure ikastetxean, Danimarka, Frantzia edo Italiatik.

Itzarmen ugari ditugu edo izan ditugu, aberri ezberdinetako enpresa eta ikastetxeekin. Horri esker, ondorengo aberriak bisitatu ditugu urte hauetan; Irlanda, Bulgaria, Danimarka, Herbeherak, Polonia, Portugal, Italia, Txipre, Austria, Frantzia eta Malta.



Jorgen, Vernet eta Lars, Danimarkako irakasleak, gure ikastetxea bisitatu zuten, bertan nola lan egiten dugun ikusteko. Tubacex eta Envases enpresak ere bisitatu genituen.

Son ya muchos años, 18 concretamente, desde que empezamos a desarrollar proyectos europeos en nuestro centro. En todos estos años hemos recorrido un camino amplio, no ha sido fácil, pero mirando retrospectivamente la experiencia y los resultados han sido positivos. A pesar de ser un centro pequeño, nuestras relaciones europeas son relevantes.

IRUÑA VELEIA

TXANGO



Ikasturte hasieran Iruña Veleiara, Valpuestara eta Tuestara egindako txangoak Euskal Herriko Historiaren parte bati ateak ireki zizkigun DBH 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleoi.

Iruña Veleia harresitutako hiri garrantzitsua izan zen erromatarren garaian. Lehenik eta behin, harresitik kanpo zegoen merkatua bisitatu genuen. Bertan, antzinako denda bati zegokion zoruaren zati bat eta pareta osatzen zuten harri batzuk originalak ziren. Hirira hegoaldeko atetik sartu ginen, harresia zeharkatuz. Harresiaren ezaugarri bereizgarria da ez zutela etsaiengandik babesteko eraiki, baizik eta krisialditik ateratzeko baliabide gisa: hirira sartu nahi zutenei zergak kobratzen zizkieten eta.

Ponpeya Valentinarek "domus"erako (etxerako) bidean hainbat kalez eta harri batzuen atzean ezkutaturik dauden istorioez gozatu genuen. Etxera iristean, oso lan arretatsuz egindako mosaikoa ikusi genuen. Txundigarria izan zen.

Bertatik Tuestara abiatu ginen, biltegiak eta tenplua bisitatu ondoren. Dirudenez, biltegietan burezurrak aurkitu izan dira! Oraindik indusketa lanean ari dira, ez baitute eremu osoa aztertu. Tuestako eliza arte erromanikotik gotikorako trantsizioan eraiki zuten, eta, bertan, bi arteetako xehetasunak bereizten ikasi genuen gidariari esker: ateko arku erdi zirkularrak edota puntadunak baloratzen, eta arku horietan egindako figura guztien esanahia. Harrigarria da nola garai hartan herria hain sinetslea zen. Arkuetan zigorrak, lanbideak, izaki mitologikoak, eta abar ageri ziren, eta horiekin gizartearen jokabide zehatz batzuk lortzen ziren, adibidez: "zure nortasunaren inguruan gezurretan aritzen bazara, piztia bilakatuko zara".

Amaitzeko, Valpuestara abiatu ginen, gaztelaniaren lehenengo zertzeladen ordezkio izateko asmoz. Ezin izan genuen eliza barrualdetik ikusi, baina, antza, bertan aurkitu izan ziren "los Cartularios de Valpuesta" deituriko dokumentuak, non bakoitzaren jabetzak ageri ziren, baina latinez egon beharreko hitz batzuen ordezkio, gaztelaniaz idatzitako lehen hitzak zeuden.

Txango kultural hau oso interesgarria izan zen, eta nahitanahiez, gure Historiak harrapatu gintuen, gure jakin-mina asetu eta gure jakintza handitzeko.

KARLA VELARDE eta SARAI FERREIRO
Batx. 1.N



... las excursiones realizadas a Iruña Veleia, a Valpuesta y a Tuesta nos abrieron las puertas a una parte de la historia de Euskal Herria, al alumnado de 4 de ESO y 1º de Bachiller.

Este viaje cultural fue muy interesante y su historia nos cautivo desde el primer momento.

AGENDA 21

15 URTE INGURUMENAREN ALDE LAN EGITEN



Agenda 21 proiektua orain dela hamabost urte martxan jarri zen eta pixkanaka-pixkanaka Institutuan gure eguneroko bizitza, gure eguneroko ohiturak aldatuz joan da.

Adibidez, orain Institutuan **hondakinen sailkapena** finkatuta dago. **Hasiera batean, papera baino ez zen batzen, baina, gaur egun, hondakin mota guztiak biltzen ditugu: papera, ontziak, pilak, CDak, informatikako material zaharra, eta jantokian sortzen den materia organikoa.**

Gure lorategietan hainbat zuhaitz landatu ditugu, egia esateko lekurik gabe geratzen ari gara zuhaitz gehiago ipintzeko, baina oraindik baten bat gehiago sartzen da.

Mugikortasunari begira, **bizikletaren erabilera** bermatzeko aparkalekuak jarri ditugu eta bizikletaren eguna antolatzen dugu, baita autobusentzako aparkalekuak ere udalarekin batera antolatu genituen.

Kontsumoari buruzko hainbat kanpaina egin dugu, saiatzen ari gara gure **kontsumoa murrizten** eta ohitura berriak finkatzen.

Elikaduraren gaia ere jorratu dugu, sinadura bilketa bat antolatu genuen jantokian erabiltzen ziren produktuak bertakoak izan zitezen eskatuz. Eta lortu genuen catering enpresaren erantzuna eta aldaketa bat.

Urtero irteerak eta mota guztietako hitzaldiak eta tailerrak ere antolatu ditugu.

Ezin dugu ahaztu azken ekarpena: **ikasleen parte hartzea bultzatzea**. Arlo honetan Institutuan ingurumenaren batzordeak funtzionatzen du, non DBHko gela guztietako ikasleek parte hartzen duten urtero. Ingurumenaren aldeko ekintzak Institutuaren eremuan ez geratzeko, gure Agenda 21eko ordezkariak Amurrioko ikastetxe guztiekin Udal Foroan parte hartzen dute.



bizikletaren
erabilera

El proyecto Agenda 21 comenzó hace 15 años en el instituto, y poco a poco ha ido cambiando nuestro modo de vida diario y nuestras costumbres.

No podemos olvidar nuestra última aportación: fomentar la participación del alumnado. En este sentido, el instituto cuenta con una comisión medioambiental, donde cada año participa alumnado de todas las aulas.



JANARI BILKETA

GURE IKASLEAK ELKARTASUNAREN ALDE



El instituto Zaraobe, como en años anteriores, ha participado en la recogida que organiza el Banco de Alimentos. Este año se ha realizado los días 1 y 2 de diciembre.

Por otro lado la asociación Coopera, invito al alumnado de ESO ha participar en una acción solidaria, del 5 de noviembre al 5 de diciembre.

Zaraobe Institutuak, azken urteetan egin duen bezala, Elikagaien Bankuak antolatzen duen janari bilketa kanpainan parte hartu du. Aurten abenduaren 1ean eta 2an izan da.

Abenduaren 2an, larunbat arratsaldean, Eroski supermerkatuan, DBHko eta Batxillergoko 14 ikaslek eta irakasle bik lagundu zuten. Amurrioko Eroskin, kanpaina osoan, **2.900 janari kilo jaso zituzten eta 800€ bonotan.**

Jendearen laguntza eta ikasleen elkartasuna eskertu nahi dugu.

Beste alde batetik, Coopera erakundeak, azaroaren 5etik abenduaren 5era arte, DBHko ikasleak elkartasunerako ekintza batean parte hartzera gonbidatu zituen.

XV. Ikasketa Olinpiada Solidarioa zen. Beraien ikasketetako ordubeteren truke erakundeak euro bana ematen zuten.

Horrela gure ikasleek gure liburutegian 201 ordu eman zuten, eta Kongon gatazkan egon den zonalde batean eskola bat eraikitzeko 201€ lortu zuten.

Eskerrik asko guztioi!

LA ENERGIA A DEBATE

ZARAOBE ORGANIZA UNA JORNADA DE DIVULGACIÓN DE LA ESTRATEGIA DE ESPECIALIZACIÓN INTELIGENTE RIS3



El 12 de diciembre el Instituto en colaboración con la agencia de desarrollo Amurrio Bidean, organizó una jornada para la difusión de la estrategia de especialización inteligente RIS3 del Gobierno Vasco. El evento se celebró en el Refor, el tema elegido fue la ENERGÍA y contó con la participación de diferentes ponentes.

El profesor de la UPV, y especialista en energías renovables **Aitor Urresti**, realizó un diagnóstico general que sirvió de presentación al acto, dando datos que llevaron a la reflexión de los asistentes e incidiendo en la importancia de una apuesta real por un cambio de modelo energético.

Cristina Oyon, responsable de iniciativas estratégicas de la SPRI, expuso las claves de la línea de estrategia de especialización inteligente -RIS3- sobre la que trabaja el Gobierno Vasco, en particular en el ámbito de la energía.

Noemi Llorente, representante del Ayuntamiento de Amurrio y **Josune Irabien**, alcaldesa del mismo municipio, presentaron el proyecto piloto de TRANSICIÓN ENERGÉTICA en áreas empresariales de Amurrio.

Por último, **Iñaki Garaio** de la empresa Baiwind, dedicada a la instalación de sistemas de generación de energía minieólica-solar, explicó algunos de los proyectos más significativos en los que ha trabajado.

En la jornada participaron 8 PYMES y diferentes representantes y técnicos de la administración, y resultó de gran interés por abordar una problemática que nos ocupa y nos preocupa a todos/as.

Gracias a todos/as los/as participantes y a los/as asistentes.

Abenduaren 12an Zaraoze institutuak, Amurrio Bidean garapenerako agentziaren laguntzarekin, Eusko Jauriaritzak bultzatu duen RIS3 espezializazio azkarraren estrategia zabaltzeko ekitaldia antolatu zuen. Aipatutako hau Reforren egin zuten, eta ENERGIA izan zen aukeratutako gaia. Honetarako guztirako, hainbat hizlari gonbidatu zuten.

Ekitaldian 8 PYMEk eta administraziooko hainbat tekniko eta ordezkariak parte hartu zuten. Oso interesgarria izan zen, denon ardura den gaia landu zutelako.

GURASO ELKARTEA

ORDENAGAILU-TEKLATUAREN ERABILERA EGOKIA ETA KOHERENTEA IKAS DEZAGUN

Azken aldi honetan teknologia berrien auzia familia guztion ikusmiran dago. Kezkagarria da gaia eta Gurasoen Elkartean ere hausnarketa eta eztabaida egon badaude, eta informatzeko, prebenitzeko eta erabilera zentzuduna bideratzeko ikastaroak proposatzeko helburuarekin lanean jarraitzen dugu.

Gaur egun ordenagailua, ikasgela barruan dugun ohiko tresna da, baina, agian, ahaztu dugu haren erabilera egokiak aurretik egindako ikasketa eskatzen duela, eta ordenagailuaren kasuan teklatuaren berezko erabilera barneratuta zegoela pentsatu da.

Nagusi gehienek teklatuaren bidez idazten dugu, baina aldez aurretik mekanografia ikasi gabe, atzamar batzuk besterik ez erabiliz, eta horrela edonolako abiadura garatu dugu; baina pantailan idazten duguna ez badugu begiratzen, testuan egiten ditugun akatsak asko izaten dira, nahiz eta makinak berak askotan zuzentzen dizkigu.

Hona hemen gure proposamena: Ez litzateke hobe izango gure ikasleei idazten hasi baino lehenago, teklatura era zuzen eta egokian erabiltzeko eskatuko bagenie? Horrela egin ezean, hain adin txikian hasitako ohitura txarrak eta akatsak sendotzen ari gara, eta, horregatik, zuzentzeko zailak edo ezinezkoak egingo zaizkigu.

Gure seme-alabek ordenagailuz idatzi behar badute, komenigarria litzateke bai ikastetxeetan, baita ikasle horien etxetan ere, haien adinetarako aproposa den mekanografia-programa baten bidez teklatuaren erabilera zuzena ikastea eta bermatzea.

BABIO GEak **mekanografia-ikastaroa** antolatzeke asmoa du, horrela gure seme-alabek 10 atzamarrak erabiliz teklatura zuzen erabiltzen ikasi ahal izango dute. Formakuntza ordu batzuekin lortuko genuke aipatutako helburua, agian jantokiko atsedendiko orduetan; baina etxetatik animatu beharko genituzke ikasleak formakuntza horretan parte hartzeko.

APRENDIZAJE ADECUADO Y COHERENTE DEL TECLADO DEL ORDENADOR

Hace tiempo que el tema de las nuevas tecnologías nos preocupa a las familias, un tema que desde las asociaciones de madres y padres seguimos debatiendo, con el fin de informar, prevenir y proponer cursos que nos ayuden a mejorar su uso.

Hoy el ordenador es una herramienta más dentro del aula, pero tal vez hemos obviado que su uso requiere de un aprendizaje previo y en el caso del ordenador con teclado se ha dado por sentado el aprendizaje innato de este.

La mayoría de los adultos escribimos con él pero sin conocimientos de mecanografía, nos defendemos con el teclado usando algunos dedos, con los que hemos llegado a desarrollar cierta velocidad, pero al no mirar lo escrito en pantalla los errores del texto son múltiples, aunque como el ordenador nos los puede corregir después el problema aparentemente está solucionado.

Es aquí donde queremos hacer nuestra propuesta didáctica: ¿No sería mejor enseñar al alumnado a manejar el teclado de forma correcta y efectiva antes de pedirle que escriba? En caso de no hacerlo estamos asentando errores que, por iniciarse a edades tan tempranas, serán muy difíciles o incluso imposibles de subsanar.

Si nuestros hijos e hijas deben escribir con ordenador sería conveniente que se garantizase, tanto en los centros como en los hogares, el uso correcto del teclado con algún programa de mecanografía adaptado a sus edades.

Desde AMPA BABIO tenemos intención de organizar algún **curso de mecanografía** que permita a nuestras/os hijas e hijos usar correctamente el teclado utilizando los diez dedos. Unas pocas horas de formación, que podrían ser en los momentos de comedor, serían suficientes, pero desde casa debemos darle la importancia necesaria como para que participen de esta formación.

2017/18KO LEHEN HIRUHILABETEKO IGEK EGINIKO EKARPENAK

Kurtso hasi denetik Babio Ikasleen Guraso Elkartek ikasleen txangoetako garraio eta ekintzen sarreretako zati bat ordaintzeaz gain, beste zenbait ekarpen ekonomiko egin du:

- Kirola egiteko materiala: 3 pilotako 4 bote, 10 tenis raketa, 6 Softi baloi, 16cm
- Euskara mintegiko maila guztietako beharrezko irakurketarako liburuak. 168 liburu (23 liburu desberdineko seinale). Mintegiak berak kudeatuko ditu kurtsoan zehar eginiko eskaerak.
- Lengua Castellana mintegiko maila guztietako beharrezko irakurketarako 114 liburu. (19 liburu desberdineko seinale). Mintegiak berak kudeatuko ditu kurtsoan zehar eginiko eskaerak.



Gurasoen Elkartea "BABIO" Asociación Madres / Padres

ZARAIBE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA
INSTITUTO ENSEÑANZAS SECUNDARIAS ZARAIBE

ampazaraibe@gmail.com

Etxebarruiar, 8 - 01474 AMURRIO (Araba)



Gurasoen Elkartea "BABIO" Asociación Madres / Padres

CONTACTO/ HARREMANETAN JARRI



Si quieres ponerte en contacto con la Asociación de Padres/Madres BABIO puedes hacerlo a través de nuestro e-mail/ Gurekin harremanetan jartzeko: ampazaraibe@gmail.com



O si lo prefieres, utiliza el buzón situado al lado de secretaría/ Edo idazkaritzaren ondoan dagoen buzoia erabil dezakezu



Azaroaren 25eko ospakizunen harira, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, gure eskolan zenbait ekintza aurrera eramán dira:

DBHko 2. mailako ikasleek BELDUR BARIK, indarkeria sexista prebenitzeko gazteei zuzendutako programan parte hartu dute. Honen helburua gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea da, jendeari eraldaketan laguntzeko.

Ikasleek **"Ikus-entzunezkoen lehiaketan"** hartu dute parte; 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa da, non ikus-entzunezko produkzioen bidez neskek eta mutilek desberdintasun egoeren aurrean nola erantzuten duten aztertu eta indarkeria sexistaren adierazpenei nola erantzun erakusten da.

Era berean, **"Beldur Barik topaketara"** joateko aukera izan dute, lehiaketako saridunak ezagutu eta indarkeria sexistaren aurkako borrokan dabiltzan ekimen, talde eta pertsonak ezagutzeko.

Hemen gure eskolako ikasleek egindako bideoak:

<https://vimeo.com/242563808>

<https://vimeo.com/242562966>

<https://vimeo.com/242563262>

Azaroaren 25ean, eskolako megafoniatik, saio bukaera eta atsedenaldi garaian ohiko musikaren ordez, indarkeria sexistaren aurkako jarrera islatzen duten abestiak jarri dira, Bebe, Glaucoma eta Zea Maysen abestiak, besteak beste.

Egun horretan, genero indarkeriaren aurkako eguna dela eta, Zaraobe Institutuan tailer bi antolatu ziren. Biek helburu bera izan zuten: talde gogoeta egitea eta guztiok eragiten gaituen arazo sozial honetaz kontzientzia hartzea.

Tailer horietako bat azaroaren 24n egin zuten, eta Amurrioko gazte feminista Otsemeak taldeak gidatu zuen.

Batxilergoko 2. mailako ikasleekin ekintza bi egin

zituzten. Guztion artean egunez egun topatzen ditugun mikromatxismoen azterketari ekion zioten, eta denbora tarte bat horien gainean eztabaidatzen aritu ziren, batzuetan antzematen hain zail diren mikromatxismo hauek daramaten guztia ikusarazteko eta kontzientzia hartzeko.

Beste tailerra, **"Kateak apurtuz, kontzientziak askatuz"**, abenduaren 1ean egin zuten. "Mendekotasun egoeran duden pertsonen arreta" zikloko ikasle batzuk antolatu zuten, eta ziklo honetako lehenengo eta bigarren mailako ikasleek parte hartu zuten.

Tailer honek modu praktikoan kontzientziazatzea eta lan egitea zuen helburu. Horretarako, aldezturik zenbait bideo ikusi eta dinamikak jorratu zituzten. Ikusezina edo sotila den biolentzia landu zuten, batez ere, baita urteetan pairatutako emakumeen aurkako biolentziari aurre egiteko eguneroko konponbide errealistak topatzen ere aritu ziren.

Tailer bien balorazioa oso positiboa eta aberasgarria izan zen; orokorrean, bertan batu ziren guztiek parte hartze handia erakutsi zuten.

Tailerrean erabili genituen bideoak hauexek izan ziren:

- La mente en pañales
- Eduardo Galeano – la mujer sin miedo
- Este chico sufrió el machismo en sus carnes (Playground)
- Mayoría oprimida
- Ahora o nunca (Alicia Ródenas Sánchez)

Con motivo del día 25 de noviembre el día en contra de la violencia de género, en Zaraobe se realizaron dos talleres. Ambos con el objetivo de hacer una reflexión grupal y concienciarnos de este problema social que nos afecta a todas y a todos.

Uno de los talleres se realizó el 24 de noviembre, por manos de Otsemeak (grupo de jóvenes feministas de Amurrio). El otro taller, "Rompiendo cadenas, liberando conciencias", se llevó a cabo el 1 de diciembre. Lo organizaron varias alumnas del módulo "Atención a personas en situación de dependencia".



Halaber, Plastika arloan ikasleek egindako Emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako kartelak, eskolako sarrera eta pasilloetan jarri dira, (argazkiak) panel handi batekin batera, non nahi zuenak indarkeria sexistaren kontrako idatzi, esaldi nahiz marrazkiak jar zitzakeen.

Kurtsoa hasi zenetik, gure eskolan tailer andana egin dira: **DBHko 3. mailan, Aldarte Lesbiana, Gay eta Transexuales arreta zentroak**, Sexu-aniztasunaren inguruko ikastaroa eman du: **ANIZTASUNA EZAGUTZEN**. Bertan, homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia soziala landu eta aukera berdintasuna, bakea, aniztasun sexuala eta genero identitatearen baloreak elkarbizitzan bultzatzen ikasi dute.

DBHko 4. mailan, berriz, Eusko Jaularitzaren sexu eta genero-aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzuak martxan jarritako **Berdindu!** programan parte hartu dute. Programa honen helburu orokorra aniztasuna aberastasun pertsonal eta sozialerako faktore gisa hartzea da eta, bide batez, homosexualitatea, bisexualitatea eta transexualitatea eta familia-eredu ezberdinak daudela ikusaraztea.

Programan parte hartu duten ikasle gehienek atera duten ondorioa da familia batean garrantzitsuena maitasuna dela; segurtasuna eta balioak transmititzea, eta hori era bateko nahiz besteko familiek egin dezaketela.

DBHko 3. mailako ikasleek ere AGLE – Arabako Gizarte Laneko Elkartek eskainitako GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA SENTSIBILIZAZIORAKO TAILERREAN parte hartu dute.

Tailerraren helburu nagusia prebentzio eta sentsibilizazioaren bidez, genero indarkeriak suposatzen duen gizarte gaitza saihestea da. Hau lortzeko, genero indarkeria zer den, modurik tipikoenak zeintzuk diren, arrisku faktoreak antzemateko moduak nolakoak diren eta maitasun erromantikoaren inguruko estereotipo faltsuak zeintzuk diren landu dira.

Maila honetan bertan, **ESANGURA-k**, Euskal Herriko Sexu **Heziketa Eskola Kooperatiba Elkartek, SEXU-DIBERTSITATERAKO HEZKUNTZARAKO PROGRAMAREN** bitartez, sexualitatea sentitzeko eta bizitzeko aukera anitzei buruzko hausnarketa egin du, non sexu-joeragatiko bereizkeriaren arazoa aztertu eta sexu erreferente berri eta positiboak bilatu dituzten.



ERRETIROA HARTU ETA GERO,



INÉS OLABARRIETA ETA TXEMA ALANGUA

BE JONDEIZUELA!



FERNANDO MUÑOZ



TXEMA ALANGUA ETA VICTOR PRELLEZO